



Helduen Literatura

Sirena-hotsak
Xabier Etxaniz Rojo
Erein, 2013

Ahots bat, egia bat

LAU IPUIN LUZE bildu ditu Etxaniz Rojok, bere ibilbide literarioan bosgarren liburua den honetan.

Matxupitxu, *Akelarreak*, *American way of life* eta *Sirena-hotsak*. Orainetik iraganera, eta alderantziz, etengabe salto egiten duten egitura konplexuko ipuin hauek zenbait gai jorratzen dituzte: etorkinen bizimodua, euskal gatazka eta kale borroka, krisi ekonomikoa, familia barruko kontu ilunak.

Idazleak bizitako momentu batetik abiatutako istorioak dira guztiak baina ez dute elkarren arteko inongo loturarik, beraz, horrek baimentzen du liburua nahi besteko denbora tartean utzi eta berriz hartzea, nahiz eta osatzen duten 181 orrialdeak azkar eta erraz irakurtzeko moduko prosa batean idatziak izan diren.

Nolanahi ere, ez dut uste lau ipuin hauek kasualitatez liburu berean bildu direnik. Independenteki irakur daitezkeen arren osotasun bat eratzen dute, ageriago edo ezkutuago, elkarrekin duten *leit motivari* esker: egia-ren kontzeptua, gurea zein besteena, eta horrek dakarren esan/ez esan dilemaren auzia. Bizi dugun egia horrek izan ditzakeen aurpegi poliedrikoetatik zenbait galdera sortuko dira: Merezi al du kasu guztietan Pandoraren kutxa zabaltzea eta gure egia kontatzea? Zenbateraino laguntzen du ezagutzen ditugun sekretuak aditzera emateak? Zein da betidanik sinetsi arazi zaigun istorio (egia) bati eman beharreko sinesgarritasuna?

Fabian *Matxupitxu*-a da, halaxe esan omen zaie Atlantiko bestaldetik datozeinei. Bi urtez zaintzen eman duen agurea hil ostean, kontatu behar al dio semeari bere aitak Pinocheten estatu kolpean lagundu zuela? Esan beharko dio, agureak kontatu bezala, zortzi seme-alaba dauzkala munduan barreiatuak?

Akelarreak ipuineko protagonistak argazki bat aurkitu du bere aitak aspaldi idatzitako liburu baten orrialdeetan galduta. Sarak ez daki zer egin. Esan beharko lioke, 80 urte bete dituen eta bere senar hilaz maitemindurik jarraitzen duen bere amari, aitak beste emakume bat maite zuela?

Gau hartan hirurek korrika egin zuten *Sirena-hotsak* aditu zituztenean, baina Julen izan zen bakarra gartzelan amaitzen. Atzekoz aurrerako bidai etengabea, bakoitzaren oroitzapenez osatutako collage egituraren bitartez, aditzera ematen zaigu gau hartan geratutakoaren egia zatiak besterik ez direla geratzen. Ipuina garatzeko erabilia izan den egitura hautsiak berak, argi uzten du inoiz ez dela egia oso bat izango.

Tratatzen diren gaien aldetik entretagarria, egitura aldetik landua, sortzen dituen burutazioengatik liburu interesgarria. ■

**Saioa
Ruiz Gonzalez**

